

Hamabosgarrena. Izena: Talde parlamentarioen kudeaketa

- a) Oinarri juridikoa: DBEOren 6.1.e) artikulua: Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko. Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua. Talde parlamentarioen ordainsariei buruzko arauak (12. NPAO, 2019ko irailaren 13koa)
- b) Tratamenduaren xedeak: Nafarroako Parlamentuan talde parlamentarioentzat ezarritako dirulaguntzak ordaintzea.
- c) Ukitutako pertsonak eta kolektiboak: Talde parlamentarioetako kideak diren foru parlamentariak
- d) Datu-kategoriak:

Identifikazio-izaerakoak:

- Izen-abizenak
- IFZ
- Izena
- Helbidea
- Herria
- Posta-kodea
- Telefonoa

Izaera ekonomikokoak:

- Bankuko kontu-zenbakia

- e) Hartzaile-kategoriak: Urtean behin, Kontuen Auzitegiari egiten zaion bidalketa eta Kontuen Ganberaren auditoretza.
- f) Nazioarteko transferentzia: ez dago halakorik aurreikusita.
- g) Bertan behera uzteko epea: Datuak gordeko dira Nafarroako Parlamentuko Artxiboaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko Arauetan xedatutakoaren arabera. Arau horiek 2000ko maiatzaren 15ean onetsi zituen Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, eta 2000ko ekainaren 8ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.
- h) Entitate arduraduna: Nafarroako Parlamentua. Nafarroako Parlamentuari norbere datuen eskurapena, zuzenketa, ezabaketa, eramangarritasuna, haien tratamenduaren murriztapena eta tratamendu horri aurka egitea eskatzeko eskubidea baliatu nahi izanez gero, bidezkoa denean, hori idatziz egin behar da, helbide honetara joz: Navas de Tolosa kalea, 1, 31002 Iruña. Bestela, posta elektronikoko honako helbide honetara: dpd@parlamentodenavarra.es.